

## VICTORIANO HUIZIREN MANUAL DE GRAMATICA BASCONGADA (1)

*Patxi Goenaga*

Etxarri-Aranazko herriak eta Euskaltzaindiak Victoriano Huiziri omenaldi egin nahi dion honetan haren *Gramatikaren* zenbait zertzelada eskaini nahi nituzke ondoko lerrootan.

### *1. Huiziren gramatika "eskuliburu" bat da.*

Hau da lehenbizi egin beharreko oharra. Ez da euskal gramatikazko tratatu bat, hizkuntza ikasteko lagungarri bat baizik.

“¿Qué diré del baskuenz respecto al ministerio sacerdotal? En Nabarra hay muchos pueblos y mucha gente que no sabe más lengua que el baskuenz; por consiguiente, para esa, la explicación de la doctrina cristiana, del Santo Evangelio, corrección de los vicios y administración de los Santos Sacramentos, debe ser en baskuenz; y á nadie se le oculta que para esto es preciso saber leer, escribir, entender y hablar el baskuenz, si no queremos conocer, como hasta ahora, casos de ver á Sacerdotes que, solos y sin saber palabra de él, han tenido que habérselas con feligresías en donde no había más que dos ó tres empleados públicos que entendieran su castellano (y esto ha sucedido con cabildantes míos), siendo consiguiente en los mismas la indiferencia religiosa. Y no basta que el Sacerdote haya nacido de padres bascongados y en pueblo bascongado, pues muchos de éstos no pueden cumplir, como se debe desear, con sus obligaciones, sin más que esto. Para éstos, pues, principalmente, y para todos los que tienen algunas nociones de la misma lengua, son los preceptos que se encontrarán en este MANUAL á muy poca costa y con pocos ratos de vela; pero también para los que le ignoran, porque añadiendo á una disposición regular alguna asiduidad en el estudio del mismo, para los cuatro meses habrán vencido todas las dificultades que amenazan abrumar al que no hace más que empezar á leer la portada de un tratado cualquiera, y lo cierra como imposible.

Mi objeto, pues, es sujetar á reglas (y no todas inventadas por cierto), en dialecto nabarro, el baskuenz que anda hecho jiras y desfigurado, sin guía fijo aun entre bascongados, y extenderlo entre castellanos como el mejor baluarte de nuestras venerandas tradiciones y fueros, y mayor gloria de Dios” (VIII orr.).

---

(1) Lan hau Etxarri-Aranatzen 1999ko ekainaren 24an Euskaltzaindiak Victoriano Huiziren eta Aingeru Irigarainen omenez egindako ekitaldian aurkeztu zen.

Argi dago, hortaz, “manual” delako honen helburua. Besterik da helburu hori hor aipatzen diren epeetan eta hain neke gutxiarekin lor ote daitekeen. Egileak ez dirudi zalantza handirik duenik, zeren liburua osatzen duten “diálogo” horietako batean honako hau ageri da (ik. 93-94 orr.):

“*Maisuba*. Badakizu euskaras?

- I.* Bai, jauna, nere erroko izkuntzau badakit zerbait.  
*M.* Badakizu eskribatzen eta irakurtzen ongi mintza modubortan?  
*I.* Ez, jauna, gure erroan eta aldekoetan eztezte uste badala iyor euskara ongi eskribatzen eta irakurtzen dakienik.  
*E.* Nola da bada ori izanik euskaldunak?  
*I.* Zergati emen ezta auskarasko libururik, edo guchi, denak erderaskuak dabizkigu eskuetan; baiya ustedet laster ikasko naukela eta ez nola nai, baizik erakusteko moduban, ikasi eskero libruhuontan aurretik dauden lecio edo erreglak.”

Propaganda faltagatik behintzat ez da izango.

## 2. Liburuaren egitura.

Ohiko gramatikan jasotzen diren atalak jasotzen dira mintzagai hartu dugun gramatika honetan.

a. Lehenbizi, gramatika bera dator, honako atal hauek osatua:

- 1) Alfabeto.
- 2) Artículo
- 3) Nombres: “simplemente tal”
  - Nombre verbal
  - Nombre sustantivo
  - Nombre adjetivo
  - Nombre simple
  - Nombre compuesto
  - Numeral
  - Ordinal
- 4) Declinación
- 5) Pronombres: Personales
  - Demostrativos
  - Poseivos (2)
  - Relativos (sic): *nor, nork, zein, zeiniek, zer, zerk.*
  - Indefinidos
  - Reflexivos (*buru* + algún posesivo)

---

(2) Erakusleen artean biltzen ditu au ‘este’ eta onena ‘de este’ tankerakoak, baina ni, zu, eta abar bezalakoak izenordain pertsonaltzat jotzen dituen bitartean, nere, zurea, eta abar “poseivos” gisa jasotzen ditu. (ik. Huizi 1899, 7). Garbi dago arrazoiak: gaztelaniaz onena ‘de este’ den bitartean, nere, zurea eta antzekoak ‘mío’, ‘tuyo’ dira eta hauek izenordain posesibotzat hartzen dira. “Onena” delako hori ‘suyo’ ere badela pentsa zezakeen, hala ere.

- 6) Grados del adjetivo (3)
- 7) Participio
- 8) Verbos (auxiliares, activos, ...)
- 9) Adverbio
- 10) Preposición (=posposición)
- 11) Conjunciones
- 12) Interjecciones

Hau litzateke gramatika partea osatuko lukeen atala (1-75 orr.). Liburuaren erdia pasa.

b. Horrezaz gainera badakar mila bat hitzeko Hiztegi bat: DICCIONARIO de algunas voces más usadas en esta Villa de Echarri-Aranaz y en su comarca. Hiztegi hau dela eta, bitxi gertatzen da alfabeto ordenari zein errespeto gutxi erakusten dion egileak. Izan ere, letrak ongi ordenatuak ageri badira ere, letra bakoitzean jasotzen diren hitzek ez dute inongo hurrenkera alfabetikorik jarraitzen: *baia*-ren ondoren *beia* dator, gero *biorra* baina ondoren *basua*, *baria*, *belia*, adibidez. Edo *aita*, *aza*-ren ondoren. Eta horrela dena.

c. Gero ariketa-gaiak edo izango liratekeenak datoz. Lehenbizi “Temas” izenburuean sei gai txiki, perpaus laburrez osatuak. Ondoren, “Diálogo” izeneko bat: hasieran galde-erantzunka emana, eta gero gai mamitsuagoak eskainiz. Bai gaiak, bai elkarrizketa, hizkuntza bitan emanak. Ondoren dator testu luze bat, euskara hutsean, elizaren historiaz eta bereziki Erromako Aita Santuek beren botere politikoa galdu zutenekoaz. Kontu hau garai hartan ari zenez gertatzen, pentsa liteke Huizi integristaren emaitza originala datekeela. Honen ondoren “Ejercicios de construcción gramatical” atala dakar (115-138 orr.), ariketa gisa aurkeztua eta, amaitzeko, hiru ipuin labor eta San Migeli eskainitako beste horrenbeste kanta.

Liburuaren amaitzeko (145-148 orr.), eranskin gisa emana dator hainbat partikula eta atzizkiren erabilera argitzen duen atal bat, joserara eta morfologia arazo zenbait aipatuz. Azken eranskin hau ere harrigarri gertatzen da, huts-zuzenketaren ondoren baitator, beraz inprimategitik bueltan etorri ondoren erantsitako zerbait da. Benetako eranskin bat, alegai azken momentuan erantsitako adabakia dela esango nuke.

Horra 145 orrialdetan barrena Huizik eskaitzen duen liburuaren edukia.

---

(3) Konparatiboan adibideak erdal itzulpenez hornitzerakoan huts nabarmena egiten du Huizik (ik. 7. orr.): gizona beziñ ona ‘tan bueno como él’ itzultzen du eta gizona baño obia, berriz, ‘hombre mejor’ itzultzen du. Harrigarri xamarra, dena dela.

### 3. Huiziren Gramatikaren iturriak.

Huizik ez du xehetasun handiegirik ematen bere lanaren iturriez. Ez dakar bibliografiarik ere. Eta aipatzen dituen autore bakarrak Larramendi eta Lardizabal dira. Lardizabalen *Gramatica Bascongada* delakoaren eragina begien bistakoa da, baina are begien bistakoagoa den beste iturri bat ere badu Huiziren lanak, nahiz eta berak ezertarako aipatu ere egiten ez duen: Luis Astigarraga y Ugarteren *Diccionario Manual vascongado y castellano y elementos de gramática para el uso de la juventud de Guipúzcoa con ejemplos en varios idiomas*. Liburu honek hainbat argitalpen izan zituen. Lehenbizikoa 1825ean eta, azkena, oker ez banago, 1935ean. Bizkaierara ere itzulia izan zen, Arrese Beitiaren eskutik jatorrizko lanak zeraman izenburu ia berbera zeramalarik: *Diccionario Manual Bascongado y Castellano y elementos de Gramática para uso de la juventud de Vizcaya, con ejemplos en ambos idiomas*. Hau 1884an argitaratu zen.

Iturri hau begien bistakoa dela esan dugu. Hain zuzen, Huiziren lanean 115-138 orrialdeetan biltzen diren “Ejercicios de construcción gramatical” dirrelakoak, hitzez hitz daude hartuak Astigarragaren lanetik. Nik neuk 1887ko argitalpena erabili dut. Beharbada, hauxe izango zuen esku artean Huizik ere. Arrese Beitiarena 1884koa denez, honek 1883koa erabil zezakeen. Bertsio desberdinen artean aldaketa txiki batzuk badira, baina huskeriak. Bat aipatzekotan, Astigarragak (85. orr.) *oquerra decan anca bucazac zucentzez* dioen lekuan, Arrese Beitiak *oquerra duan anquea amaituic zucentzez* ematen du baina Huizik (ik. 130. orr) *okerra dekan anka zuzenzak* ematen du. Aditzari edo zenbait hitzi dagozkionak dira aldaketok, beti ere Etxarriko euskarara nolabait egokitzeko asmotan, Arrese Beitiarena bizkaierara egokiturik zegoen bezalaxe.

Egia da beste testu batzuk ere biltzen dituela, San Migeli eskainitako kantak, adibidez edo Elizaren historiako atal luzea (105-114 orr.). Atal honek badu beste berezitasun bat ere: beste guztietan testua euskaraz eta gaztelaniaz ematen den bitartean, hau, berriz, 134-142 orrialeetan biltzen diren hiru ipuintxoak bezala, euskara soilean. Aita Santuak botere mundutarra galtzeaz ez dirudi oso ados dagoenik egilea. Dena dela, momentu honetan ez nago testu honen iturria zein datekeen esateko moduan. Gaztelaniazko ordainik ez izateak pentsarazi diezaguke jatorrizkoa dela, Huizirena berarena ote den ez jakin arren.

Eta ariketetan eta testuetan ez ezik, Huiziren gramatika soilezko atalean ere nabari ote daitezke iturrien nondik norakoak? Argi dago baietz. Batetik Lardizabalen lana hor dago. Aipatu ere egiten du. Baina Astigarragaren lanaren oihartzunak ere erraz nabari daitezke. Esan daiteke lan horretan oinarriturik moldatu zuela eskuartean dugun *Gramatica Bascongada* hau. Harrigarria dena da iturririk ez aipatzea, kontuan izanik, jatorrizko testuak arrakasta handia izan zuela. Arrese Beitiaren egokitzapenaren atarikoan honela mintzo da argitaratzailea:

“Al efecto, con la buena cooperación de un distinguido bascófilo vizcaino, cuya ilustración es notoria, y no obstante que por no molestar su excesiva modestia se omite su nombre, hasta tanto que él se digne autorizarnos para ello, se ha confeccionado el popular Diccionario Manual bascongado (...) por el reputado y conocido escritor D. Luis de Astigarraga y Ugarte”. (Arrese Beitiarena 1884, VI. orr).

Testua moldatu beharra izan zuen Huizik, Astigarragarena, Arrese Beitiarena bezala, elebiduna baitzen. Gainera, jatorrizkoak helburutzat ez zuen haurrei euskal gramatika irakastea, gaztelaniazkoa irakastea baizik:

“En ninguna provincia de España es tan necesario este estudio como en el país bascongado donde el único idioma que se aprende en la juventud es el bascuense; y donde la lengua castellana es tan exótica como la francesa ó la de otra cualquiera nación estrangera, particularmente en algunas aldeas. (...)”

Para facilitar pues á la juventud bascongada el estudio de la gramática castellana y aun de la latina, he creído muy conveniente coordinar y publicar este diccionario manual poniendo antes de él algunas observaciones sobre ambas lenguas” (Astigarraga 1887, VIII-IX).

Huizik bestelako asmoa agertzen du:

“Eztezaket izan nik asmorik iyori Euskara erakusteko, baiya iduritzen zait gaurko egunian Iparaldeko Euskalerrietan dagon itz edo mintza modua ikasi eskero elkar aditü gentzakela eta ez giñakela galduko emendi kampuan, eta artarako nei nauzke eman erregla batzuk nere Euskara erraz ikasteko edozeiñek; es-tet uste iñoren jakinduriarik mermatuko dutela geionetan” (Huizi 1899, IV. orr.)

Nolanahi ere, ez da oso ongi ulertzen iturriak ez aipatzea gure gramatikariak, handik eta hemendik noizbait pilatutako lanak eta adabakiak azken uanean, presaka, bildu beharra izan zuelako ez bada.

Huiziren liburuan, gramatikaren atalean, aditzak hartzen du lekuri handiena (8-71 orrialdeak). Horrenbestez, inon aurkitzekotan hemen aurkituko ditugu aipatu ditugun lan horien zantzuak. Ondoko taula honetan aski ongi ikus daitekeela uste dut hiru lan horien parekotasuna (4).

Bide batez, aipagarria iruditzen zait Arrese Beitiaren argitalpenaren sarrean nola interpretatzen den bi hizkuntzen arteko “jokoa”. Honela dio:

“... me ha parecido del caso arreglar el Diccionario Manual bascongado y castellano de D. Luis de Astigarraga y Ugarte para uso de la juventud vizcaina, á fin de facilitar á los Sres. Profesores de primera enseñanza de ambos sexos, en dicha Provincia, todo aquello que contribuya á hacer que sus discipulos se ejerciten á la vez en la conversaci3n de ambos idiomas; es decir, en el castellano con relaci3n al dialecto vizcaino”. (V. orr.)

(4) Bide batez, konpara bedi hau Campionen eskemarekin (Campion 1885, 347) eta berehala ohartuko gara iturriak non dituen Huizik. Campionen lana askoz modernoagoa begitantzen zaigu Baina, nolanahi ere, Huizik ez zuen Campionen lana aintzat hartu.

LARDIZABAL	ASTIGARRAGA ARRESE BEITIA	HUIZI
<b>Infinitivo</b>	<b>Infinitivo</b>	<b>Infinitivo</b>
Presente ( <i>jan, ja-tea</i> )	Presente ( <i>izan / jan</i> )	presente ( <i>izan / eraman / joan</i> )
Pretérito ( <i>jan-izan</i> )	Pretérito ( <i>izan izan / jan izan</i> )	pretérito ( — / eraman izan / joana izan)
Futuro ( <i>jan-bear</i> )	Futuro ( <i>izan bear / jan bear</i> )	futuro ( <i>izan bear / eraman bear / joan bear</i> )
Participio pres. ( <i>ja-ten</i> )	Participio (— / <i>jana</i> )	participio (— / eramanik, eramana / joana)
Participio pret. ( <i>jan-a</i> )	Partic. Pres. ( <i>izaten / —</i> )	participio pres. ( <i>izaten / —</i> )
Participio fut. ( <i>jan-go duena</i> )	Partic. Pret. ( <i>izan / —</i> )	partic. Pret. ( <i>izan / —</i> )
Partic. Fut. Compuesto ( <i>jan-izango</i> )	Partic. Fut. ( <i>izango / —</i> )	parti. Fut. ( <i>izain-izanen / —</i> )
Gerundio de genit. y dat. ( <i>ja-teco</i> )	Gerundio ( <i>jaten</i> )	Gerundio (— / eramaten / joaten, joan eskero)
Gerundio de acusat. ( <i>ja-tera</i> )	Gerundio de genit. y dat. ( <i>iza-teco</i> )	Gerundio de genit. y dativo ( <i>izateko / —</i> )
	Gerundio de acusat. ( <i>izatera / —</i> )	Gerundio de acusat. ( <i>izatera / —</i> )
Ablativo absoluto ( <i>jan-ic, jan-da, jan-ta, jan-eta</i> )	Ablativo absoluto ( <i>izanic / jan-ic</i> )	De ablativo absoluto ( <i>izanic / —</i> )
<b>Indicativo</b>	<b>Indicativo</b>	<b>Indicativo</b>
Presente ( <i>jaten det</i> )	presente ( <i>jaten det</i> )	presente ( <i>esaten det</i> )
pretérito imperfecto ( <i>jaten nuen</i> )	pretérito imperfecto ( <i>jaten nuen</i> )	pretérito imperfecto ( <i>esaten nuen</i> )
pretérito perfecto próximo ( <i>jan det</i> )	pretérito perfecto ( <i>jan nuen</i> ) (5)	{pasado/pretérito} próximo ( <i>esan det</i> )
pretérito perfecto remoto ( <i>jan nuen</i> )	pret. próximo ( <i>jan det</i> )	{pasado/remoto} ( <i>esan nuen</i> )
pretérito pluscuamperfecto ( <i>jan izan nuen</i> )	pret. anterior ( <i>jan nuen</i> )	pretérito pluscuamperfecto ( <i>maitatu izan ninduzun</i> )
futuro imperfecto ( <i>jango det</i> )	pret. pluscuamperfecto ( <i>jan izan nuen</i> )	futuro imperfecto ( <i>esanen det</i> )
futuro perfecto próximo ( <i>jan izango det</i> )	futuro imperfecto ( <i>jango det</i> )	futuro perfecto ( <i>ikasi izanen det</i> )
futuro perfecto remoto ( <i>jan izango nuen</i> )	futuro perfecto ( <i>jan izango det</i> )	

(5) *Pretérito perfecto* delakoa eta *pretérito anterior* euskaraz forma bereko gertatzen dira eskema honetan. Baina ematen zaion erdal ordainak (batean “yo comí” eta bestean, “yo hube comido”) justifikatuko luke Astigarragaren lanean bi aldiz ematea euskaraz. Gogoan izan lan hau, Huizirena ez bezala, gartzelaniaz irakasteko asmoz egina dela.

LARDIZABAL	ASTIGARRAGA ARRESE BEITIA	HUIZI
<b>Condicional</b>  futuro absoluto ( <i>izango nuque</i> ) futuro condicionado ( <i>izango banu</i> ) pretérito absoluto ( <i>izango nuquean</i> ) pretérito condicionado ( <i>izan banu</i> )		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Supositivos (<i>amatu albadet / amatu albanau</i>)</li> <li>• Subjuntivo (<i>amatu albaneza</i>)</li> <li>• Condicional (<i>amatzen badet</i>)</li> <li>• Imperfecto (<i>amatuko banau</i>)</li> <li>• Pluscuamperfecto (<i>amatu izan banau</i>)</li> </ul>
<b>Imperativo</b>  ( <i>izan ezazu</i> )	<b>Imperativo</b>  ( <i>amatu ezazu</i> )	<b>Imperativo</b>  ( <i>amatu dezazu</i> )
<b>Subjuntivo</b>  presente ( <i>izan dezadan</i> ) pretérito ( <i>izan nezan</i> )	<b>Subjuntivo</b>  presente ( <i>amatu dezadan</i> ) pretérito imperfecto ( <i>amatuco nuque</i> ) pretérito perfecto ( <i>amatu izan dezadan</i> ) pretérito pluscuamperfecto ( <i>amatu izango nuque</i> ) futuro ( <i>amatzen dedanean</i> )	<b>Subjuntivo</b>  <ul style="list-style-type: none"> <li>• presente (<i>amatu dezadan</i>)</li> <li>• pretérito imperfecto (<i>amatuko nuke</i>)</li> <li>• futuro (<i>amatzen detenian</i>)</li> <li>• potencial (<i>amatu dezaket</i>)</li> <li>• imperfecto (<i>amatu neza-ken</i>)</li> </ul>

Huizi, hala ere, ez da beste biak bezain sistematikoa. Ez du besteak bezain argi ematen kategorien arteko desberdintasuna. Hori argien subjuntibo, baldintzazko eta abarretan ikusten da. Huizi Astigarragaren inkongruentzia beretan erortzen da, kontuan izan gabe haren abiapuntua gaztelaniazko gramatikaren kategoriak zirela. Lardizabalek ongi ematen ditu subjuntiboko bi aditzaldiak. Gaizki kokatuak daudenak, bistan da, Astigarragaren eta Huiziren *amatuko nuke* bezalakoak dira, horiek nekez sar baitaitezke subjuntiboaren menpean (ik. 14. orr.).

Deklinabideari dagozkionetan ere argi dago Lardizabalen *Gramatica Vascongada* dagoela bai Astigarragaren lanaren azpian bai Huizirenarenean. Adibide gisa, hor dugu genitiborako ematen den forma: *Mariarena*.

Beste batzuetan, Astigarragarena dago, besterik gabe Huiziren lanaren azpian: batean eta bestean ematen diren adberbio zerrendak, esaterako, aski berdinak dira. Hurrenkera ere ia bera dute zerrenda biek.

Posposizioen kasuan, berriz, Huizik espreski aipatzen du Lardizabal (ik. 73 orr.).

Hortaz, Huiziren lanaren orijinaltasuna aski urria dela esan dezakegu.

#### 4. Zer dakar berririk, hortaz?

Kontua da Astigarragaren lana, bere garaian oso ezaguna izan bazen ere - hogeit bat argitalpen izan zituen- ez dira horiek Huiziren lanean inon aipatzen. Hau, berriz, euskal gramatiken artean aipatu izan da noizbait (ikus, adibidez, Añamendiren Hiztegiari "Gramatica" sarrera). Bere garaian egunkarietan agertutako erreseina batek honela baloratzen du:

"Es obra sumamente apreciable por su sencillez y claridad en la que están explicadas con el mejor método y con abundantes ejemplos en castellano y vascuence las distintas partes de la oración, siendo notabilísima por la declinación de los nombres y por la riqueza que se nota en la estructura de sus verbos. Esta obra, basada en el estudio de los ocho dialectos vascongados, viene a llenar un gran vacío, pues se ocupa del dialecto navarro septentrional, por componer esta parte la mayoría de los vasco-navarros, y no haberse escrito gramática para ella, y con el fin de que se tenga un guía seguro a quien seguir" (*El Eco de Navarra*, 13 de agosto 1899. Ref. *Perez Goyena, Ensayo de Bibliografía Navarra*, t. IX, 265-266).

Egia da ematen diren azalpenak laburrak bezain argiak direla. Baina gehiegizko laudorioak direla ematen du.

Ordea gramatika gisa duen balioa mugatu xamarra izaki, Etxarriko euskararen ispilu izan zitekeen lan hau. Egiatzki hala ote da? Damaso Intzak ez du uste:

"Bere idazti onetan garai askotan nasten du ango euskalkitxoaren bukaera, naiz geiengan gipuzkoerazkoa erakutsi.

Berak adirazten du aldaketa au esanez: oartu naiz *aditzen* garai askotan, askarrezko edo pluraleko bigarren eta irugarren lagun esanerak, banak dirala Barrankako erri aunditxo batzuetan. Etxarriaranatz'en, Arbizu ta Lakuntza'n (?) ibiltzen dute *bie* bukaera: *amatu dezubie-erosi biau zubie-ikasiko dezubie-eraman bear debie*; Ergun'n (Ergoiena) *dezie* bukaera ibiltzen da: *jan dezie-il dezie*; Borundan DEZEI: *ikusi dezei-jan dezei* eta beste aldaketa gutxiago esan nahi duen batzuek, auek nere iritzi estuan gipuzkoera ta bizkaieraren ustelkeri batzuek besterik ez dira. Bere erriko aldaketa batzuek lena gipuzkoeraz ta urrena bere erriko erara ekartzen ditu. *Dezute* edo *dezubie*, *dute* edo *debie*, *ziñaten* edo *ziñubien*, *zuten* edo *zabien*, *balau*, *dau* edo *du* (...)

Garai guzi auek Etxarriarantz'ko erara dira, baño bat baño geiago gipuzkoerazko bukaera emateagatik asko aldatu daude. Argatik ez alde batekoak eta ez bestekoak gelditu dira. Etxarriarantz'ko euskalkitxo guzia batean argitaratzean argi ikusiko da egia" (Intza (1920-1921, 32-35).



Hortaz, Huizik, aski moldatuak ematen dizkigu adizkiak. Hori ikusteko aski da begirada bat ematea Yrizarren lanari, nahiz eta Huizerenean askoz adizaldi gehiago eskaintzen diren Yrizarrenean baino. Adibide bat jartzeko, har dezagun 28. orrialdean eskaintzen digun “pretérito próximo” delakoaren zati bat. Ezkerrean emango dugu Huizirena, eskuinean, berriz, Yrizarrena:

Huizi (28. orr.)	Yrizar (391 eta hurr.)
NAUZU NAU NAUZUTE NAUTE ZAITUT ZAITU ZAITUGU ZAITUZTE	NIEZU NAU, ... NIEZUBIE NAUBIE, ... ZAITUT, ... ZEITTU, ... ZEITTUGU, ... ZEITTUBIE
NAIZ ZERA DA GERA ZERATE DIRA	NEIZ ZAA DA GAA ZARIE DIA
DET DEZU DAU DEGU DEZUTE DUTE	DET DEZU DAU DEU DEZUBIE DEBIE/DUBIE

Aldaketa asko aipa litezke. Zilegi izan bekit, nolana ere, bat aipatzea. Yrizarren datuen arabera, badirudi Etxarri Aranatz-en *didazu* eta antzekoen orde, *nauzu* erabiltzeko joera dagoela. Yrizarrek (1991, 392-393) *nietzu*-rentzat ‘tú me has’ eta ‘tú me lo has’, biak, ematen dizkigu. Etxarrin eta beste leku askotan gertatzen den oker hori gainditzen du Huizik. Hala ere, batzuetan hark ere huts egiten du. Ikus, adibidez, 39. orrialdean: *zuk esan nietzu* ‘tú me la has dicho’. Eta *zuk maitatu nauzu* ‘tú me has amado’.

##### 5. Azken oharrak.

Ez dut amaitu nahi beste hiru puntutxo aipatu gabe:

a) batetik, aginteran, *ezazu* bezalako laguntzailearen orde *dezazu* ematen digu. Begien aurrean zituen erduetan horrelakorik ez zen. Astigarragari

mailegatutako testuetan *ezazu* ageri da inolako zalantzarik gabe. Hala ere, berak *dezazu* forma ematen du. Erregularitasunaren izenean edo. Hala ere, Huizi ez da batere koherente, zeren bere ariketetan *deseatu ezazu guchi* (123. or.) ematen du lasai asko, Astigarragak *guticiatu ezazu* dioen lekuan (76. or.) eta Arrese Beitiak (76. or.) ere *guticiatu eguizu*.

b) bada beste puntu bat ere oso harrigarria. Izenordainen deklinabidea ematen duenean (ik. 6. orr) NI, NIK, ...; ZU, ZUK, ...; I, IK, ...; GU, GUK, ... ematen du, baina ZUEK-en kasuan behin bakarrik ematen du forma hori: ZUEK, ZUEI, ZUENTZAT, ... zerrendatzen ditu, ZUEK behin bakarrik jasoz. Baina aditz jokoan sartzen denean ez da inondik ere ageri GU, beti GUK: *guk gera* (8. orr), *guk izanen gera* (9. orr), *guk izan gaitezen* (9. orr.), *guk izanen giñan* (10), etab (6). Nola esplika hau? Ez, noski, inongo euskalkian horrelakorik esaten delako. Segururik analogia gogoak eraman zuen horretara gure gramatikalaria, honen antzeko arazoibidea asmatuz: *-k* pluralaren marka da, *gu* ere plurala da, beraz *guk* behar du. Ez zait beste azalpenik bururatzen. Hala ere, gogor egiten da euskaraz dakien batek horrelakoak asmatzea gramatika batean.

c) azkenik, zilegi izan bekit, *Manual* honetatik ariketa bat hautatzea. Egi-leak egoki ikusi zuen, Astigarragak bezala (7), “periodo” batzuk lantzeko. Ziur naiz neure ikasleei horrelako testu bat jarriko bagenie, nahiko arazo izango luke eta. Hona hemen testu hori (130-131):

“Anciñako liburu batean irakurri det ongi itz egiten erakusteko fama aundiko maisu Sokrates-i joan zitayola egun bates bere ikasle izan nayan orrako gazte emezortzi urterekin asko dakitela uste izanik berrogeyan ere asto aundi batzuek baizik ez diran octatik bat, zeñak bere talentu eta jakinduri aundien onra eta alabanzak kontatu ondoren galdetu zion zenbat eramanen zion lezio bakoitzagatik, eta maisuak erantzutearekin beste ikasleai alako bi, arritü eta ofenditua erantzun zion ...”

Zail dirudi horrelako testu bat egokitzen ematea euskara ikasteko eskuliburu batean. Hurrei euskara irakastea bada behintzat helburua

Hizpide eman digun lan honi adjektiboren bat jarri beharko banio, bitxia dela behintzat esan beharko nuke. Presaka moldatutako lana dela ematen du: handik eta hemendik gaiak bildu, egokitzen gehiegi saiatu gabe, nola-hala josi eta argitara eman. 145-148 bitarteko eranskin trinkoaren lekua ere ez da liburuaren duena. Azken orrialde hauek “Corrigenda” delakoaren ondoren ematea oso esanguratsua da. Atal honetan sintaxia eta hitz eratorpena aipatzen dira be-

(6) Eta adizjokoaren azalpenean ez ezik, ariketa gisa ematen duen “Diálogo” delakoan ageri da *guk gu-ren* orde: “Gelditü da gure artian Sacramentu Santuan *guk salbatzeagatik*” (104). Itzulpenak ez du zalantzarik: “por salvarnos”. Orrialde berean “*guk galdurik geunden*” irakur daiteke.

(7) Dena dela, Astigarragak eta Arrese Beitiak “erreprchatu cion”, “erreprchatu eutsan” dioten lekuan, Huizik “erantzun zion” dakar

reziki. Atal horren hutsunea nabarituko zuen egileak eta, besterik gabe, erantsi egin zizkion lanari. Osotasun handiena duen partea gramatikari dagokiona bera da. Hiztegiak, esan dugun bezala, alfabeto hurrenkera ez du errespetatzen eta, gainera, biltzen diren hitzek ez dute, berez, gero ariketetan eta abarretan ageri direnekin ikusteko handirik.

Honelako lan batek behar dituen atalak (gramatika, hiztegia eta ariketak) ongi biltzen ditu Huiziren lanak. Akatsa da eskuetan zituen langaiak taxutzen ez zuela behar bezala asmatu, beharbada presaka ibiltzeagatik. Presaka zergatik ibili zen, hori da nik ez dakidana. Argi dago egileak Nafarroan euskara zabaltzeko asmotan idatzia dela gramatika hau, baina bere inguruko arazoren bat zela medio, presaka ibili zen, antza, Huizi. Lanaren kalterako, noski.

## BIBLIOGRAFIA

- Arrese Beitia, F. (1884), *Diccionario Manual Bascongado y Castellano y Elementos de Gramática para uso de la Juventud de Vizcaya, con ejemplos en ambos idiomas*. Eusebio Lopez,. Tolosa.
- Astigarraga y Ugarte, Luis (1887 ), *Diccioanrio Manual Bascongado y Castellano y Elementos de Gramática para uso de la juventud dela M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa con ejemplos en ambos idiomas*. Eusebio Lopez, Tolosa.
- Huici, Victoriano (1899), *Manual de Gramática Bascongada dedicado á la Excma. Diputación de Nabarra y Seminario Conciliar de Pamplona*. Imprenta y Librería de Erice y Garcia, Pamplona.
- Intza, D. (1920-21), "Naparro'ko aditz-laguntzalea zuketazko esakeran", *Euskera* 1920-1921, 32-35 orr.
- Lardizabal, F. I. (1856), *Gramatica Vascongada*. Imprenta de Ignacio Ramón Baroja, San Sebastian.
- Perez Goyena. *Ensayo de Bibliografía Navarra*, t. IX, (265-266)
- Yrizar, Pedro (1991), *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano (estudio dialectológico)*, tomo II. Euskaltzaindia, Bilbao.